



UDAKO OPORRALDIA: ARAZOA GURASOENTZAT?

Maribel San Sebastian psikologoa eta guraso eta irakasleen hezitzaileak ikastetxeak zabalik egotea dela aukera dio 3

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2008-06-29**

VIURTEA 1.473.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Asteasun egin zuten goitiberen jeitsieraren une bat. I.T.

San Pedro Eguna ospatuko dute gaur hainbat herritan

TOLOSALDEA Atzo Asteasun eta Leaburun festa giro polita izan zen egun osoan zehar 6



Hitza Pilota Txapelketako sari banaketaren une bat, atzo Beotibar pilotalekuan. A. IMAZ

JENDE UGARI HITZA PILOTA TXAPELKETAKO FINALETAN BEOTIBARREN

PILOTA Irazustabarrena-Altuna, Larrea-Iribarria, Urdangarin-Jaka, Jauregi, Ezkurdia-Zubiri eta Renobales-Bengoetxea, txapeldunak 4-5



Ikuspegi berezia zuen atzo Zerkausiaren goiko pisuak. N. GARZIA

Kirola eta festa uztarturik, Kilometroen alde

TOLOSA Bizikleta Festa egin zuten atzo arratsaldean Zerkausiaren goiko solairuan 7



Hemen dago

308 Sw Berria

TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban Auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tfno: 943-650337
Fax: 943-652938
tolosa@tolosa.sedpeugeot.com

A Argazki zaharra



Sanjoanetako estropadak 60. hamarkadaren hasieran

Desagertzearen liburua I



» Uzturretik

Koldobika Jauregi

Kaixo! ba ahal dago norbait beste aldean?

Nire hausnarketak, itsasora bota berri dudan botilaren moduan dabilta, gora eta beheara bakardadearen aparrean hondoratuko ez diren itxaropenean.

Uharte honetan berrogei eta zortzi urte daramatzat, ez dakit nahikoak diren ala ez ondorio aberatsik ateratzeko, argi dago ez naitzela orain dela hogei eta hamar urte zengazte hura ez eta ere hausnarketa berdina dituen.

Ba zen garai hartan mamu txar bat desagertzea egingo zuena, gehienbat zaharturik zegoelako. Orduan bai indarra eta kemena; A las barrikadas!

Bakoitza bere nortasunaren bila. Geroztik botila mezulariak bildaltzen saiatzen naiz; Noizbehinka beste itsas botila bakartiak iristen dira nire hondarretara... baina gutxi dira.

Hemen uharte honetan badira mendi tonttor ederrak, gora igo eta haizea sentitu aurpegian, edonora begiratu eta edertasuna...

Garai haietan orain dela hogei eta hamar urte, konturatzen hasi nintzen gertuko zenbait bizi lagun desagertzen hasi zirela, geroztik prozesu hura ez dagelditu, ez dakit lehendik holako gauzarik gertatzen zen ala ez baina orduantxe hasi nintzen konturatzen. Orduan ez nekien herri hau, uharte bat bihurtzen ari zela eta nolabait penintsulatik pitzatzen hasi eta berarekin batean lagunak desagertzen.

Gaur egun iruditzen zait deribarraz noala lur zati txiki honetan eta batzuetan beldurrez jota esnatzen naiz ondoratuko naizen beldurrez.

Irakurri nuen aspaldian... Añamendi aldean bazegoela herri bat, kantu eta dantza artean igarotzen zituenak egunak, itsas aparretan bainatuz...

Harro nengoen ez ote nintzen herri hartakoa; garai hartan nik ezagutu dudan gerrate txiki bakarra hasia zen. Batzuk bat batean desagertu ziren eta beste batzuk ikusezina bihurtu ziren eta horrela jarraitu du gaur arte.

Une batez iruditu zait balantza egin ote duen uharteak.

Nora iritsi ote dira uretara botatako botila mezulariak?

Nire etxea buru barruan daukat, apal batean txanoak, bata anglosajobixera, Italiatik ekarritako kape-la, bi txapel... Zertarako bi txapel buru bakarra izanik?

Azken urteetan konturatzen hasi naiz txapela ez erabiltzarekin batera zenbait lagun desagertze zorian daudela, bada ez bada ere gehixeago erabiltzen dut.

Hizkuntzarekin ere gauza bera gertatze ote den ere susmoa daukat: Añamendi aldean zegoen herri hura, non ote? uharte diaspora hau al da?

Horregatik nire etxean, hori da nire buru barruan, zenbait gauza gordetzen saiatzen naiz.

Trumoiak eta tximistak hasten direnean txapela jantzi eta ikusten dudan lehenengo putzura hurbildu eta euskaraz hasten natzaio, bertan beti azaltzen den personari, bera ez da mamu bat, hantxe egoten da beti edo ni azaltzen naitzen behintzat, akaso izango da Añamendiko norbait eta beti kontselu berdinarekin: ez lotsatu euskalduna izateaz, zeren horrek desagertu arazten zaitu.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia)
Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia)
Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala
Talosa (Bellatokia)

HITZA FINAL JENDETSUAK

V. HITZA Pilota Txapelketa » Atzo eta herenegun txapelketaren sei kategorietako finalak jokatu ziren Berastegin eta Tolosan.

ASER IMAZ
V. Hitza Pilota Txapelketa atzo amaitu zen Beotibar pilotalekuan jokuntako finalak.
Txapelketan 6 maila ezberdin egon dira, adinaren arabera. Atzo laurikatu ziren eta herenegun, berastegin, benjaminen eta infan-
talen finalak jokatu ziren.
Antolatzaileek Hitza Txapelketa aurrera ateratzeko lagundu duten herritar eta Udal guztiak eskerrak eman zizkien sari banaketaren ostean.

Beotibar jendez beterik
Tolosako pilotalekuan jende ugari elkartu zen atzo 10:00etatik 15:00etara. Lau maila ezberdinetan, hau da, infaniletan, kadeteetan, jubenetan eta seniorretan Hitza Txapelketako finalak jokatu baitziren.
Txapelketa apirilaren hasi zen. Euskal Herriguztiko 300 pilotari ingururak hartu dute parte V. edizioan. Antolatzaile lanetan, udaketaren laguntzar gain, pilota gustakoa duten jende ugari aritu dira lanean.


zalantrik gabe Hitza Txapelketa aurrera ateratzeko lan handia egin dute herritarak.
Eskualeko pilotariak
Herenegun eta atzo jokatu ziren finalen eskualeko hainbat pilotariaritu ziren txapelketaren lehian.
Benjaminetan Iratxetabarrena eta Alhuna alegiarrak 16-9 irabazi zuten Sagarrazu eta Mugika oiar-
tzarrei berastegin.
Akabintetan eskualeko orde-
karirikabarrek, Larreak, txapela lortu zuten Iribarria ordizarrarekin batera. Markagailua begiraturik final erraza izan zutela esan behar, 16-3 irabazi baitzuten Espelusi-
n Aguiroz batzandarrek.
Infaniletan Berasteginako Ar-

naldek jokatu zuten, Zelastaren ordez, Labakarekin batera finala galdu egin zuen ordea. Irabazleek ar-
ten, Jaka Iizartzarra aurkitzen zuten. Honek Urdangarinek jokat-

tu zuen. Jubenetan eta Seniorretan eskualeko bi ordezkari aritu ziren eta biak garaipeko lortu zuten, Zubiri berasteginarrek eta Renobales alegiarrak hain zuzen ere.

»» EMAITZAK

Benjaminak Iratxetabarrena-Alhuna Sagarrazu-Mugika	16 9	Kadeteak Jauregi Barberena	18 13
Alebinak Larrea-Iribarria Espelusi-Aguiroz	16 3	Jubenak Ezkurdia-Zubiri Kortabarria-Garzia	22 13
Infanilak Urdangarin-Jaka Aranalde-Labaka	18 12	Seniorak Renobales-Bengoetxea Amenandiz-Lopez	22 17



«Asteburu ona izan da. Elgetan finalera eta hemen txapela irabazi dut»

UGAITZ RENOBALDES
Seniorra

Bezperan Elgetan partidua jokatu ostean iritsi zen Ugaitz Renobales (Alegia, 1986) atzo Beotibaroko finalera. Nebaek nabe, txapela lortu zuen aurrelaririk. Azken liru urte-tan txapela lortu du alegiarrak Hitza txapelketan.
Bi egunetan emaitzak onak?
Egia esan asteburu osoa izan da. Elgetako txapelketa garrantzibisa da eta finalerako txapelak lortu nuen. Gaur berri txapela irabazi dut eta gustura.
Nola bizi izan duzu partidua?
Partidua nahiko ondo eman dugula iruditxi zait hasieratik. Erraz ez dut esango baina hasieratik bide-nuturaz dugu.
Ziurtasunez jokatu duzue?
Jon Bengoetxea, atzelaria, seguru-seguru aritu da. Pilota edukit duen txapela eta eman ere egin da. Ni ere ematen saiatu naiz eta akats batzuk egin ditudan arren aukera nuenean emaitzen asmatu dut.

«Ugaitzekin oso gustura jokatzen dut. Iaz ere biok batera lortu genuen txapela»

JON BENGOTXEA
Seniorra

Iragan urtean bezala Renobalesekin osatu du bikotea Jon Bengoetxearekin (Eibar, 1980). Bigarren urtez jarraituz txapela lortu du.
Finala nola bizi duzue barrutik?
Beteranoak gara jada eta ez gara urduratzen. Hasiere hasieratik ondo ibiligarra.
Aurkako aurrelariak kolpe handia erakutsi du. Beldurrik ba al zenioten?
Askok josten duela bagenekien. Beldurra genuen pilotakada hasi partidua hautsiko ote zuen. Bera mugitzen bikiain senten dugua, or-nara arrimaten pilota eta atzera botatzen. Ono joan da partidua.
Zer moduzko aurrelaria tokatu zaizu txapelketa honetan?
Ugaitzekin oso gustura jokatzen dut. Lehenago urtean ere berearekin jokatu nuen eta ondo modetan gara. Oreretan ere batera arri gara jokatzen. Aurrean oso abila da eta ongi defenditzen da.

»» KATEGORIA GUZTIEKAKO BESTE PILOTARI TXAPELDUNEN ERREKAZIOAK



«Aurkarik onak ziren eta zaila izan zen finalak»

Aratz Irazustabarrena
BENJAMINA

«Finala zaila izan zen aurkarik onak zirelako. Baina aurrelari ona daukat eta irabaztea lortu genuen. Txapelak irabazteak ez dakit zer suposatzen duena.»



«Hasieran pikat urduri nengoen baina gero ondo»

Aluna
BENJAMINA

«Finala ona izan zen niretzat. Ono jokatu genuen nahiz eta pikat hasieran urduri egon. Gero partidua hasi eta joan galdu nuen urduritasuna.»



«Uste baino lasaialago azaldu naiz finaler»

Joseba Eskurdia
JUBENA


«Uste baino lasaialago azaldu naiz finaler. Pentsetan nuen nerbio gehiagorekin bilko niretzat bano. Atzetan bi atzelariak ere nerbioso zuden eta gehiena atzetan joan da. Nere lana aurrean seguru egotia izan da, pilota zailak kendu eta bajatik biliteza, poza artzen da txapelak gehiago.»



«Txapela irabazteak ilusioa ematen du, gustura nago»




«Uste baino errazago irabazi dugu finala»




Ehau Larrea
ALEBINA

«Finala poltsa izan da baina uste baino errazago irabazi dugu finalak. Oso lasa joan naiz finalera eta txapela irabazteak beste txapela bat gehiago esan nahi du. Aurrelari oso onak tokatu zaidala esan beharra dago.»



Iker Iribarria
ALEBINA

«Uste baino errazago irabazi dugu finalak. Oso lasa joan naiz finalera eta txapela irabazteak beste txapela bat gehiago esan nahi du. Aurrelari oso onak tokatu zaidala esan beharra dago.»



«Berotzerakoan nabaritzen nuen urduritasuna»



«Aurtengoa lazkoa baino gogorragoa izan da»



«Txapelak irabaztea izugarriko poza izan da»

Jaka
INFANTIA

«Asko sufritu dugu. Hasieran gaitzen hasi gara, gero berditzen lortu dugute azkenik buelta emanaz irabazi egin dugu. Bigarren aldian txapelketa hau irabazten dudala eta hasieran oso gustura ibili naiz. Hala eta guztiz ere aurtengoa irabaztea zailagoa suertatu zaigun.»

Mikel Urdangarin
INFANTIA

«Gogorra izan da. Partidu guztia penekatu joan da eta ez da erraz izan. Aurrelari onak ziren, dena eman dute eta tantoa egiten bada-kitea erakutsi dute. Txapela irabazteko gogorriko poza izan da, ez nintzen sekula finalera iritsi eta poza handia sentitu dut.»



«Hasieran ez zitzaidan deus ateratzen»

Anton Jauregi
KADETA

«Nerbioso hasi dut partidua. Berberenen dena ateratzen zitzaion eta nik ezin nuen ez zitzaidan deus ateratzen. Gero etsedenaldiekin etab, lasatu egin naiz eta hobe aritu naiz. Finala erimio onan joan da. Tuntu poltik egon dira baina baita hutsek ere. Orhar txapelketan zehar dezentet ibili naiz, gaurkoan baino hobe. Gaur hala moduz jokatu dut baina azkenean txapela lortu dut eta amiarren kontent.»

Ingeniaritza IMH Ingeniaritza Eskola

Badakizu Elgoibarren Ingeniaritza egin daitekeela lan eta ikasiz ?

Ate irekiak:

Zatuz eta ezagutu gaitzazu!

Uztailak 2, atsaldetik 19:00etan

Elgoibarren 2. eta 3. kaleak 1. 48113 Elgoibar. Tel: 947 74 11 11. Inguruko beste 1000 inguruko zuzendakariak.



San Pedro Egun Handiaren zain

ASTEASU-LEABURU ● Gaur ospatuko dute San Pedro Eguna Abaltzisketan, Asteasun, Leaburun eta Urkizun, ekitaldi ugariarekin egun osoan zehar, baina atzo ere festa giroa izan zen nagusi, Asteasun eta Leaburun. Asteasun, goizean jakiek izan zuten protagonismoa, tortilla lehiaketarekin, eta arratsaldean, berriz,

goitiberen jeitsierak ikusmira handia sortu zuen herritarren, jende ugari igo zelarik Elizmendira. Leaburun zaldizkoek hartu zuten atzo herria, Zaldi Eguna izan baitzen. Gaztetxoek egun osoan zalgurdian ibili ahal izan zuten, eta horretaz gain, ibilaldia izan zen, eta zaldiei buruz ikasteko aukera izan zen. I.T.



Herritarrak herritarrentzat kantari

TOLOSA ● Atzo goizean Alde Zaharreko kaleetan zebiltzanek ekimen berezi batez gozatzeko aukera izan zuten, hainbat herritar kantari aritu baitziren. Amarotz Auzo elkarteak, Lizardi eta beste hainbat elkarterekin zuten kalera kantatzera irteteko deia eta erantzuna oso ona izan zen, herritar ugari egon baitziren kantuan. Hileko azken larunbatero egingo dute. I.T.



Koadrila ugari bat eginik

ZIZURKIL ● Joxe Arregi plazan giro polita izan zen atzokoan. Eguraldia lagun jende ugari elkartu zen bertan bazkaria egiteko Koadrilen Egunaren aitzakian. Bazkarian musika entzuteko aukera izan zuten, eta ondoren, herritarrak izan ziren mikrofonoan jarri, eta bertsotan aritu zirenak. Txaloak eta barreak, denetarik izan zen. I.T.



Irureamendi Egoitzak, Hirugarren Adineko Pertsonen zainketa dedikatua, eta Tolosan kokatua, honako lanpostua bete nahi du:

ANTOLAKUNTZA ETA GIZA BALIABIDEETAKO TEKNIKARIA

(Erreferentzia: RR.HH.)

Zuzendaritza Orokorraren menpean, Pertsonen Administrazioa gainbegiratu, Giza Baliabideetako politikan parte hartu, lan erlazioen koordinazioa, jardueren ebaluaketa eta formazio planen diseinua, besteak beste, egingo ditu.

Lanpostu honetarako, ezinbestekoa izango da honako ezaugarriak izatea:

- Lizentziatura.
- Giza Baliabideetan formazio gehigarria izatea baloratu da.
- Antzeko lanpostuetan eskarmentua izatea baloratu da.
- Euskera: 3. Hizkuntz eskakizuna edo baliokidea.
- Pertsona dinamiko, ekimenarekin, antolamendu zein talde lanean aritzeko gaitasuna izatea baloratu da.

Interesatuak, deialdiaren oinarriak jaso eta bertan azaltzen den eskaera orria aurkeztu beharko dute, **Irureamendi Egoitzan, Iruña Etorbidea 6 zenbakian – Tolosan**, iragarki hau argitaratu hurrengo egunetik, 10 egun naturaleko epean.

Xabier Usabiaga asteasuarrak kazetaritza saria jaso du Rikardo Arregi sarietan

ERREDAKZIOA

Xabier Usabiaga asteasuarrak kazetaritza saria jaso zuen atzo Rikardo Arregi sarietan.

Sari banaketa Andoingo udal-txean egin zuten eta orotara 4 sari banatu zituzten. Joxe Mari Iriondori ohorezko saria eman zioten, Bizkaia Irratiari sari berezia eta Kazetari Berria ataleko Lander Arbelaitzi. Epaimahaiaik Usabiagaren «komunikatzeko gaitasuna» azpimarratu zuten.

Euskal Unibertsitatea eratzeko fundazioa sortu berri dute

ERREDAKZIOA

Atzo Euskal Unibertsitatea eratzeko fundazio bat sortu zuten, aurkezpen ekitaldia Kursaalaren egun zutelarik. Campus nagusia Tolosan izango da. Oraingoz kideak ondorengo hauek dira: UEU, AEK, EKT, Elkar Fundazioa, Ikastolen Elkarteak, Ipar Hegoa Fundazioa, Kontseilua eta Nazio Eztatidagunea. Urte amaieran zehaztuko dute eskainiko dituzten titulazioak zein izango diren.

Xabi Fernandez Kielgo Nazioarteko Estropadetan, lehenengo

ERREDAKZIOA

Xabi Fernandezek eta Iker Martinezek Kielgo (Alemania) Nazioarteko Estropada irabazi zuten atzo. Aste osoan zehar irauan duen txapelketa olimpiko honetan oso gogor aritu dira euskaldunak eta egin dituzte probetan oso emaitza onak lortu dituzte. Haien helburua lehenengo bosten artean gelditzea bazen erem atzo *Medal Race* ize-neko proba irabazi ondoren lehenengo postua lortu dute.

G Gutunak

Ekainak 28, lesbiana, trans, gay, eta bisexualen harrotasun eguna

Egun emakumeok bigarren mailako herritarrak izaten jarraitzen dugu, gure eskubideen alde antolatzen eta borrokatzen jarraitzea beharrezkoa dugularik. Horregatik, ekainaren 28an ere kalera ateratzeko beharra dugu.

Azken urteetan zenbait eskubide eskuratu ditugula esan daiteke, ezkontzeko eskubidea edo adopzio eskubidea esaterako. Baina eskubide hauek ez dute gure sexualitatea eta harremanak nahi dugun bezala bizitzeko aukera bermatzen.

Sexualitate hegemoniko bakarraren ondorio garbia dugu emakume lesbiana ikusezintasuna. Kaletik gurutzatzen duzun jende guztia, ezagun guztiak, "denak omen dira printzipioz heterosexuak, kontrakoa demostratzen den arte," dio sinesmen herrikoiak...

Eredu heterosexista honekin hautsi eta norberaren sexualitatea ukatu gabe, aukeratzeko eskubidea aldarrikatzen dugu. Aukeratzeko, ordea, emakumeoi oztopo gehiago jartzen dizkigu sexismoak: jendaurrean hitza hartzea eta gure sexualitate eta gozamaña bizitzea ukatzen zaigulako.

Guzti honi, lesbiano jendarteko botere eta influentzi soziala ukatu nahi izatea gehitu behar diogu: egindako ekarpenak errekonozitu, historian izandako presentzia ezkatutu eta beste hainbat gauza.

Heziketa, kultura zein komunikabideek... transmititzen dizkiguten lesbiana estereotipoek ez dute laguntzen gainera: Itsusia, gaizki zaindua, marmarka dagoen genio txarreko izeba iletua... gure autoestimuan zuzenean eragiten duten estereotipo faltsuak sortzeaz gain, espazio sozialetik baztertzeara eramaten du. Emakume ezberdinak ulertzeko egon daitezkeen milaka erak errekonozitu behar dira, eta ildo horretan, gure harremanak nola eraiki nahi ditugun aske aukeratu.

Egun berezia da ekainaren 28a. Lesbiana eta gayen mugimenduak botere heterosexistaren aurka matxinatu ziren eguna. Mugimendu feministako partaideak garen momentutik eta emakume ororen eskubideen alde borrokatzeko konpromisoa hartu dugun momentutik, egun honekin kalera ateratzeko beharra dugu. Emakume lesbiana sufritzen dugun ikusezintasuna salatuz, gure aukeratzeko eskubidearen alde indarrak bildu eta kalera ateratzeko eguna da ekainaren 28a. Identitate ezberdin, sexualitate eta harreman askeen alde lesbiana kalera!

Tolosaldeko Bilgune Feminista
Tolosa.

Cycling-a eta Bonberenearen festa Kilometroak 2008ren baitan

Kilometroak 2008 »

Bizikleta festa arratsaldean izan zen Zerkausan, eta Bonberenearen eskutik jarraitu zuen gero.

NAIARA GARZIA

Zerkausiak atzo beste itxura bat hartu zuen, Kilometroak 2008 egitasmoaren barruan Bizikleta Festa antolatu baitzuten. Hori dela eta, 16:30etik aurrera Zerkausi inguruan nabarmena izan zen festa eta kirol giroa.

Guztira, 150 pertsona inguruk parte hartu zuten eta 10 monitore eta 86 bizikleta behar izan ziren ekitaldi hau aurrera atera ahal izateko. Ordubeteko lau saio egin ziren eta saio bakoitzean hiru monitore aritu ziren gidari-lanak egiten. Saio bakoitzeko parte-hartzaileen artean, 16 kanpin-denda eta 12 kirol-jantzi zozketatu ziren. Kilometroak-2008ren abestia, orain dela gutxi grabatua, entzungai izan zen arratsalde osoan zehar.

Atzo ere, Kilometroetako ekonomia batzordeak 2 lagunentzako afari bat zozketatu zuen. Baita asteburuko hiru egonaldi ere, landetxe batean, laguntzaile diren merkatarien saltokietan erosi duten bezero guztien artean.

Bonberenea Festa

Bizikleta Festa amaitu baino lehen Bonbereneako kideak jada kalean ziren, Tolosako bazterrak alaitzeko asmoz. Izan ere, atzo Bizikleta



50 lagun inguru bildu ziren Zerkausan cycling-a egiteko, 16:30etik aurrera. N. GARZIA

Festaz gain, Kilometroak 2008 egitasmoaren barruan Bonberenea Festa antolatu baitzuten.

Erraldoiak, buruhandiak, Mulambo eta Bonberenea txaranga Tolosako kaleetan ibili ziren. Festa

honen helburu nagusia KMK-08 inguruan lan egin duten pertsonen festa bat eskaintzea zen, herriko bazterrak alaitzeaz gain eta baita jendea Bonbereneara hurbiltzea ere, izan ere, kalejira ibili ondo-

ren gauean kontzertuak izan ziren gaztetxean bertan, baita dj bat ere. Hasieran Desordutan taldearen txanda izan zen eta ondoren In de kitxen taldeak jo zuen. Amaitzeko DJ-Bull-ek musika jarri zuen.



Mulambo taldeko musikariak Trianguloan. N. GARZIA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Neska euskalduna eskaintzen da udaran umeak zaintzeko. 615 72 06 17.

■ **Zaintzailea.** Emakumea behar da etxeko lanak egin eta 2 ume zaintzeko. 627 46 58 10.


SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai, Tolosako alde zaharrean. Merkea.

Obra egin behar da. Interesatuta daudenek ondorengo telefono zenbakietara deitu behar dute: 657 23 00 11 / 634 91 94 82.

BESTELAKOAK

■ **Oporrak.** Uztailaren 6etik 27ra Korsikara bidaia: 7 lagun furgone-taz, mendia, bizikleta eta hondartza. Interesatuak 635 73 67 72ra deitu (Eneko).



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

San Pedro jaiak

■ **Abaltzisketa.** Larraitzen:
12:30ean meza nagusia, ondoren
hamaiketakoa eta trikitilariak, eta
arratsaldean trikitixa.
■ **Asteasu.** Gaur: 10:00etan diana;
11:15etan meza nagusia; ondoren
hamaiketakoa eta Dantza Soka
emanaldia; esku pelotako finalak;
13:00etan Trikiti egunaren hasie-
ra; 18:30ean herriko gazteen arte-
ko herri kirol saioa; 19:30ean Trikiti
jaialdia herriko plazan; 23:00etan
Ostoloza eta Pujana trikitilarien
emanaldia.
Bihar: 11:15ean meza, eta ondoren,
hamaiketakoa jubilatuentzat;
13:00etan, herri kirolak (aizkola-
riak eta harri-jasotzaileak);
14:30ean, jubilatuen bazkaria ber-
tsolariekin eta trikitilariekin;
18:30ean, herriko dantzari txiki-
en emanaldia; 19:30ean, Tapia eta
Leturiarekin dantzaldia.

■ **Leaburu.** Gaur: goizaldean suzi-
riak; 11:00etan meza nagusia; on-
doren hamaiketakoa; 12:30ean
toka txapelketa; 17:30ean herriko
dantzarien emanaldia; 18:30ean
herri kirolen erakustaldia: Maria
Jose Sardon harrijasotzailea, Jose
Ignacio Flores eta Ernesto Ezepe-
ta aizkolariak, Ana Arrospe in-
guede eta lasto altxatzailea eta
ahari jokoak.

■ **Urkizu.** Gaur: 9:00etan diana,
11:00etan meza nagusia, ondoren
hamaiketakoa, 12:30ean toka txap-
elketa, 18:00etan umeen jokoak
eta txokolatada, 18:30ean bolo
txapelketa; egun osoan, trikitila-
riak egongo dira.

Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoa, gaur:
17:00etan, *El principe de los ladro-
nes*; 19:30ean, *Beautiful boxer*;
22:00etan, *Desayuno en pluton*.
Bihar (ikuslearen eguna):
20:30ean, *Beautiful boxer*.

» GUARDIAKO FARMAZIAK Gaur

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta,
1.943 67 36 49.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Na-
gusia, 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya
kalea, 112.
Bihar
■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernika-
ko Arbola, 3. 943 65 10 40.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar
kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen
egunkariaren adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik.



Giro ederra Ugarteko betizu jatean

AMEZKETA ● Atzo 100 lagun inguru bildu ziren Ugarteko Pilotalekuan, be-
tizu jatea egiteko. Aurten seigarren urtea da hau antolatzen dutela, baina
lehenengo aldiz auzokoek prestatu dute betizua. Joseba Zubeldia buru
izanik eta batzordeko beste partaideen eta beste zenbat herritarren lagun-
tzearekin prestatu zuten betizua. Bezperan hondarra eta bandejak ja-

rri zituzten, iluntzean, eta goizeko 03:00etan hasi ziren betizua erretzen.
Hau erretzen zen bitartean, kontu-kontari pasatu zuten gaua, eta Klarita
Goikoetxeak gosari «bikaina» prestatu zien sukaldariei, tripakiak, min-
gaina eta tortilla. Bazkaltzeo betizuaz gain, entsalda, txorizo egosia eta
gazta irasagarrondoarekin izan zituzten, baita gozoak eta kafea ere. N.G.

A Agurrak



Urte askoan!

Sara Agirrezabala (Tolosa).
Gaur 4 urte. Zorionak eta
muxu handi bat Jon Ander
eta Arantxaren partetik.

Zorionak!

Joritz Azkoitia (Azkoitia).
Gaur urtebete. Zorionak
eta egun ona pasa!

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Ekain beltza berriarekin

eleBERRI beltzArekin



Utzi ezinik
irakurtzeko modukoak

Lau liburu:

ekainak 7, 14, 21 eta 28



+
2,9€

